

**ZER DA OINARRIZKO ORDAINKETA KONTUA?**

[Espainiako Bankuaren](#) hitzetan, oinarrizko ordainketa kontuak Europar Batasunean finantza inklusioa sustatzeko beharrianari erantzuteko kontu mota bat dira, eta kontsumitzaileei bankuko oinarrizko zerbitzuetarako sarbidea errazten diete. [Espainiako Bankuaren martxoaren 29ko 2/2019 Zirkularrean](#) araututa dago. **Bankuko kontu bat eskuratzea kontsumitzaileen eskubide gisa** jotzen du Europak, eta oinarrizko ordainketa kontuak sortu ditu. Bankuak **behartuta daude horrelako kontuak eskaintzera**, kontratazioa beste zerbitzu batzuk sinatzearen mende jarri gabe. Halaber, kontu horiek **ezagutarazteko eta ezaugarriak azaltzeko** betebeharra daukate.

**INFORMAZIOA****ZEIN DA BANKUAK EMAN BEHAR DIDAN GUTXIENENKO INFORMAZIOA?**

Kontu horrek badaudela eta herritarrek horiek eskuratzeko eskubidea daukatela	Jakitea oinarrizko kontu bat eskuratzeko ez dela beharrezkoa beste zerbitzu batzuk eskuratzea
Ezaugarri orokorrak	Irekitzeko eta ixteko prozedura
Aplika daitezkeen komisioak	Gatazkak eta auziak konpontzeko sistema alternatiboa

**ESKABIDEA****ZEIN PROZEDURA JARRAITU BEHAR DU BANKUAK NIRI OINARRIZKO KONTU BAT IREKITZEKO EDO UKATZEKO?**

Kontu mota horiei buruzko informazio guztia emateaz gain, bankuak zure eskaera jaso eta izapidetu egin behar du, eta 10 eguneko epean erantzuna eman behar dio.  
**Sekula ez onartu ukoa leihatilak, exijitu eskaera aurkezteko zure eskubidea!**

**ERANTZUNA****KONTU MOTA HORIETAKO BAT IREKITZEA UKATZEKO ARRAZOIRIK BADAGO?**

- Espainian jada kontu korrante baten titular izatea
  - Segurtasun nazionalaren edo ordena publikoaren interesen aurkakoa izatea
  - Ez aurkeztea kapitalak zuritzearekin edo terrorismoa finantzatzarekin lotutako obligazioak bete ahal izateko erakundeak eskatzen dizun informazioa.
- GARRANTZITSUA:** AIZ edo bizileku edo lan baimenik ez izatea ez da, bere horretan, ukatzeko arrazoi bat. Arauak aintzat hartzen du "bizileku baimenik ez daukaten" pertsonen mota horretako kontu bat eskuratu ahal izateko aukera.

**Exijitu beti idatzizko erantzuna!**